

2015eko AZAROAREN 25eko irakurketa

HAU EZ DA GURE BAKEA Ekin autodefentsa feministari!

Hala diote, normalizazio prozesua bizi dugula Euskal Herrian. Patriarkatuaren funtzionamendu “baketsua” alegia? Bakea, ez da soilik indarkeria jakin baten eza, eta bistan da. Emakumeok ez baikara “bakean” bizi, ez behintzat emakumeon kontrako indarkeria normaltzat duen bake egoera neutralizatu honetan: zeinetan, emakumeon aurkako gutxiespenak, irainak, gustukoak ez diren txisteak, kolpeak, prekarietate eta muturreko pobrezia egoerak, etab eguneroako errealitate diren.

Indarkeria sexistarekiko tolerantzia 0. dioten hitzak, puntu moreak edozein denda eta tabernetan, pankartaren atzealdean ordezkarri politikoak edonoiz; geroz eta kontzientziatuagoa dago jendartea eraso sexisten gaiarekin: ados. Oso erosoa eta komenigarria izan daiteke aldarrikapen hauekin bat egitea, lanketa formal eta politikoki zuzenak egitea, «feminista naiz» etiketa jartzea, erasoa beti kanpoan kokatuz, nor bere burua zalantzan jarri gabe eta errora jo gabe. Erantzunak puntualak izaten dira, eta inondik inora emakumeok eta identitate ez normatiboek jasaten dugun indarkeriaren tamainakoak. Bada berriro azpimarratzen dugu; indarkeria sexista, sistema patriarkalaren makineriak darabilen tresna dela emakumeok azpiratuta betikotzeko, jendartean gizon eta emakumeon arteko botere harremanak mantentzeko. Batzuk, boterearen jabe, aktibo, dirudun, ar alfa... izaten jarrai dezaten eta besteok, des-botere, pasibo, pobre, abegikor jarrai dezagun. Hala, intentsitate baxu zein altuko indarkeria bortitzenak (emakumeen erailketak, bortxaketak, eraso lesbofoboak, esplotazioa...) eguneroako errealitate eta biziak dira gure bizitzetan; hemen inork ez du alerta egoera deklaratzten astero- astero bortxaketa salaketak prentsan albiste ditugunean edo sei emakume eraitzen ditutzenean Euskal Herrian urte batean.

Sistema heteropatriarkalean, etengabe erasotzen ari gaituzten honetan, feministok, indarkeria sexistaren aurka 365 egunetan dihardugu. Batzuetan pankartaren atzean, besteetan, instituzio publiko politikoekin protokoloak elkarlanean lantzen, indarkeria sexistaren aurrean asistentzia eta babes sareak ehuntzen, jaietan emakumeontzako espazio seguruak sustatzen, indarkeria sexistaren egitura osoaren kontzeptualizazioa jendarteratzen, Autodefentsa Feminista tailerrak egiten. Besteetan, aldiz, ileorde, buru beroki nahiz kuleroak buruan jarri eta lapurtu nahi izan dizkiguten kale eta gauetan barrena erantzuteko prest gaudela. Bati erasotzen digitenean guztioi erasotzen digitela ozen oihukatzen jarraituko dugu.

Emakume bezala sozializatuak izan garenok, oro har, beldur dosi handiz elikatu gaituzte txiki-txikitatik. Ez digute utzi beldurra erantzun bilakatzeko gaitasunez jantzi. Are gehiago, sozializazio prozesuan zehar, gure buruarengan segurtasuna izatea ahalbidetzen duten esperientziak ukatu dizkigute, gure barne-mugak errotuz. Bortxaketa esaterako, emakume guztiok emakume izate hutsagatik bizi dugun mehatxua izanik gure ekintzak eta espazioan egoteko moduak mugatzen ditu. Honek izen eta helburu argia dauka: indarkeria eta kontrola.

Baina, zein da ordea, jendarte honen (eta bere botere harremanen) parte diren beste subjektuen zeregina? Bada garaia sistema honek sortzen duen beldur eta biolentzia arduraz kudeatzeko, erradikaltasunez, hots, arazoaren errora joaz norberaren jardunetik gure praktika politiko kolektiboetara pasatuz. Ardura lekualdatu, banatu, eta indarkeria sexistaren aurkako borrokan apustu garbiak egiteko garaia dugu, bakoitza bere eremutik, norabide berdinean.

Indarkeria sexistaren aurrean autodefentsa feministaz ahalduntzea izan zen eta da gure hautua, eta bide honetan jarraituko dugu indarkeriak gure bizitzak kolpatu bitartean. Behar, ardura eta zilegitasun osoa daukagulako gure buruengan sinetsi, saretu eta blokeatzen gaituen beldurra erasoei erantzuteko emozio aktibatzaile bihurtzeko. Emakumeok erasoen aurrean, biktima gisa jarduten dugun bitartean, jendartean ez da arazorik. Bainahalduntzean, erantzuten dugun momentuan gure erantzuna zalantzan jartzen da, zigor zuzen nahiz sozialen bitartez. Gu, erantzuteko eskubidean berresten gara, gure bizitzak jokoan daudelako, guk ez badugu egiten ez duelako beste inork egingo.

Bakearen aroa bada, izan dadila denontzako bake garaia.

**Euskal Herria, 2015eko azaroa
EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**

Lectura del 25 de noviembre del 2015
ESTA NO ES NUESTRA PAZ
Responde mediante la autodefensa feminista!

Eso dicen, que vivimos en un proceso de normalización en Euskal Herria. O sea, ¿en el funcionamiento “pacífico” del patriarcado? La paz no es solo la falta de cierta violencia. Y esto salta a la vista, ya que las mujeres no vivimos en paz; no vivimos en paz, al menos, en una situación neutralizada que considera la violencia contra las mujeres como algo normal. Los menosprecios contra las mujeres, los insultos, los chistes que no gustan, los golpes, las situaciones de precariedad y extrema pobreza...

La sociedad está cada vez más concienciada con los ataques sexistas: las palabras que dicen “Tolerancia 0 frente a la violencia sexista”, los puntos morados en cualquier tienda o bar, los representantes políticos que se ponen detrás de una pancarta en cualquier momento: de acuerdo. Es muy cómodo y conveniente unirse a estas reivindicaciones, hacer procesos formales y políticamente correctos, ponerse la etiqueta de «feminista» sin cuestionarse a uno mismo y sin ir a la raíz de la cuestión. Las respuestas suelen ser puntuales, y para nada proporcionales a la violencia que sufrimos las mujeres y las que no tenemos una identidad normativa. Por lo tanto, recalcamos otra vez que la violencia sexista es una maquinaria que utiliza todo el sistema patriarcal para tener siempre sometidas a las mujeres, para eternizar las relaciones de poder entre hombres y mujeres en la sociedad. Para que unos sigan siendo poderosos, activos, ricos, machos alfa... y las demás débiles, pasivas, pobres, apacibles. Las violencias más duras de baja o alta intensidad (asesinatos, violaciones, agresiones lesbofóbicas, explotación...) son la realidad y las vivencias de nuestro día a día; y aquí nadie declara una situación de alerta cuando semana tras semana hay noticias sobre violaciones en la prensa o cuando asesinan a seis mujeres en Euskal Herria.

En el sistema heteropatriarcal, las agresiones son continuas y, por ello, las feministas luchamos contra la violencia sexista durante los 365 días del año: a veces detrás de la pancarta, y otras veces trabajando protocolos con instituciones políticas públicas, tejiendo redes de cuidado y asistencia ante la violencia sexista, promoviendo en fiestas espacios seguros para las mujeres, socializando cada elemento de la maquinaria de la violencia sexista o creando espacios y talleres de Autodefensa Feminista; vistiéndonos con pelucas, pasamontañas, bragas y pañuelos en la cabeza y gritando alto que no queremos agresores en las calles y noches que nos quieren robar y que cuando agredean a una nos agredean a todas.

Sin embargo, ¿Qué ha del resto de sujetos que son parte de esta sociedad (y de sus relaciones de poder)? Ya es hora de gestionar con responsabilidad el miedo y la violencia que crea este sistema. Radicalmente, esto es, desde la raíz del problema, es hora de cambiar de bando la responsabilidad en la lucha contra la violencia sexista, de repartirla y de hacer apuesta claras en este sentido, cada quien trabajando en su ámbito, en una misma dirección.

Ante la violencia sexista nuestra elección fue y es empoderarnos mediante la autodefensa feminista, y seguiremos en este camino mientras la violencia siga golpeando nuestras vidas. Porque tenemos la necesidad, la responsabilidad y la legitimidad de creer en nosotras mismas, de aliarnos y de convertir el miedo que nos paraliza en energía activadora que nos impulse a responder. Mientras las mujeres aparecemos como víctimas ante la violencia sexista no hay problema. Pero si nos empoderamos y respondemos, sen os cuestiona, sen os castiga directamente o socialmente. Nosotras, nos reafirmamos en nuestro derecho a responder, porque son nuestras vidas las que están en juego, porque si no lo hacemos nosotras nadie lo hará por nosotras.

Si son tiempos de paz, que haya paz para todas.

**En Euskal Herria, el 25 de noviembre del 2015
EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**